

BESTELAKO XEDAPENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA

3341

AGINDUA, 2026ko uztailaren 7koa, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa baterako deialdia egin eta hura arautzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026rako salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko.

Garraio publikoaren sektorean ematen den zerbitzua seguruagoa, hobeagoa, gardenagoa eta arinagoa izateko, beharrezkoa da sektorean hainbat aldaketa egitea, besteak beste: teknologia berriak ezartzea, hala nola flotak lokalizatzeko eta kudeatzeko sistemak, betiere kudeaketa eta kontrol-zentro batekin lotuak; segurtasun-elementuak jartzea, eta bide-segurtasuna areagotzeko, gidarien lan-baldintzak hobetzeko eta lehia leiala babesteko, bigarren belaunaldiko takografo adimendunak instalatzea salgai eta bidaiarien garraio publikoko ibilgailuetan. Hori, alde batetik, positiboa da garraio-enpresarentzat, azken belaunaldiko teknologia erabiliz zerbitzua modernizatzeko aukera emango diolako, eta, bestetik, onuragarria da erabiltzailearentzat ere, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzua ematen zaielako. Gaur egun teknologian egiten ari diren aurrerabideei esker, kalitatea eta segurtasuna handitu daiteke; izan ere, merkatuan dauden kudeaketa, lokalizazio, kontrol, komunikazio eta segurtasuneko puntako teknologiako sistemek ibilgailu-floten kudeaketa eta segurtasun efizienteagoa ahalbidetzen dute.

Laguntza-programa hau sartuta dago Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren 2025eko otsailaren 17ko Aginduaren bitartez onartutako Mugikortasun Jasangarriaren Saileko 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, eta egoitza elektroniko honetan kontsulta daiteke (<https://www.euskadi.eus>). Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen helburuen barruan sartzen da: garraio jasangarri baterantz aurrera egitea eta salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren sektorea modernizatzea, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuz. Era berean, sektoreko kudeaketa- eta merkaturatze-sistemak hobetu nahi dira, zerbitzua gardenagoa izateko. Azkenik, esan behar da deialdi hau lotuta dagoela XIII. legegintzaldiko Gobernu Programaren 118. konpromisoarekin, «Mugikortasun jasangarria, garraio publikoa eta mugikortasun aktiboa bultzatzea».

Euskal Autonomia Erkidegoko 2026. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeak baimendutako kredituen arabera, dirulaguntza-deialdi honek nahikoa aurrekontu estaldura dauka.

Horrenbestez, eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 382/2024 Dekretuaren 3.1 artikulua ematen didan eskumena baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Deialdia.

Garraio publikoaren arloan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratzeko eta ezartzeko 2026rako deialdiaren oinarriak onartzen dira, eta laguntzen deialdia egiten da. Aipatutako sistemak 2026.urtean zehar eskuratu edo ezarri beharko dira, onartzen diren eta I. eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarrizko araudia, eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

Era berean, laguntzak honako hauen mende daude: 2023/2381 (EE) Erregelamendua, Batzordearena, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EEAO L 2023-81820, 2023-12-15), 2024ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek auke-rako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Mugikortasun Jasangarriaren sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 7a.

Mugikortasun Jasangarriaren sailburua,
SUSANA GARCÍA CHUECA.

I. ERANSKINA

GARRAIO PUBLIKOAREN SEKTOREAN TEKNOLOGIA BERRIEN ETA
SEGURTASUNAREN SISTEMAK EROSTEKO 2026RAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN
OINARRIAK

1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da erregulatzea nola eman behar diren sistema hauek eskuratu eta ezartzeko laguntzak (alde batera utzita leasing edo renting kontratuak, edo eskurapenaz bestelako beste edozein negozio juridiko), zeinak 2026an gauzatu beharko baitira, eta, nolanahi ere, 2026ko azaroaren 30a baino lehen:

a) Ibilgailu-flotak lokalizatzeko eta kudeatzeko sistemak (GPS edo antzekoak), kudeaketa- eta kontrol-zentro batekin lotuak, bai ibilgailu astunetan egiten den salgaien garraio publikorako, bai gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiagoko ibilgailuetan egiten den bidaiari-garraiorako. Ez da dirulaguntzarik emango ibilgailu-floten kudeaketa- eta kontrol-zentro batean integratuta ez dauden lokalizazio-elementuak modu indibidualizatuan eskuratzeko.

b) Salgaien garraio publikoko ibilgailu astunetarako eta gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiagoko bidaiari-garraioko ibilgailuetarako segurtasun-elementuak, gidatzea seguruago egiten dutenak:

- Artaziarena ez egiteko sistemak.
- Istripuen erregistratzailea.
- Suteak detektatu eta autoitxaltzea.
- Aurreko beiratik gidatze-dinamika erregistratzen duten kamera-sistemak (dash cam), bai eta gidatzean ikuspena edo maniobragarritasuna hobetzera bideratutakoak ere.
- Talkak arintzeko teknologiak, hala nola sentsoreak eta radarrak erabiltzea talkak saihesteko.
- Istripu edo larrialdiak gertatzen direnean kontrolgunera automatikoki deitzeko edo abisatzeko sistemak.

c) Gidatze efizientea optimizatzeko eta erregai-kontsumoa murrizteko sistemak:

- Ekonometroak eta gidatzea monitorizatzeko sistemak.
- Gurutzaldi-abiaduraren kontrolagailuak.

d) Bigarren belaunaldiko takografo adimendunen sistemak.

2.– Aurreko apartatuan aipatzen diren sistemei ere eman ahal izango zaizkie laguntzak fabrikatik badatoz inplementatuta eskatzaileak eskura ditzakeen ibilgailu berrietan –betiere aukerako sistemak direnean-, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Ibilgailua 1. apartatuan adierazitako epean eskuratzeko.

b) Sistema horien kostuak ibilgailuaren kostu osotik argi eta zehatz bereizteko modukoak izatea. Horretarako, ibilgailuaren erosketa-fakturan, bereizita agertuko da zer kostu izan duten programa honen arabera diruz lagundu daitezkeen sistema inplementatuek.

Apartatu honetan xedatutakotik kanpo geratzen dira aurreko apartatuko d) letran aipatzen diren bigarren belaunaldiko takografo adimendunen sistemak. Sistema horiengatik laguntza eman ahalko da soilik, baldin eta aldez aurretik teknologia hori instalatuta ez duten ibilgailuetan haiek ezartzeko bada.

3.— Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo handiagoa bada, eta, betiere, hirugarrenekin kontraturik egin behar bada, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahikoa entitate, edo salbu eta gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Efizientzia eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da hautaketa aurkeztutako eskaintzen artean, zeinak dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharko baitira, eta, proposamen ekonomikorik onuragarriena aukeratzeko ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

Baldin eta, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera nahitaezkoa izanik eskaintza bat baino gehiago eskatzea, eskaintza horiek aurkeztu ez badira, edo ekonomikoki onuragarriena ez den eskaintza bati ematen bazaio dirulaguntza, justifikazio egokirik gabe, organo emaileak ondasunaren edo zerbitzuaren peritu-tasazioa eskatu ahal izango du, eta sortzen diren gastuak onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatzeko, bi balioetatik txikiena hartuko da erreferentziazat: onuradunak adierazia edo tasazioaren ondoriozkoa.

4.— Era berean, diruz lagundutako gastuek abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.4 artikuluan xedaturikoa bete beharko dute. Onuradunak dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eta gutxienez bi urtez gainerako ondasunen kasuan.

5.— Onuradunak hirugarrenekin kontratatu ahal izango du diruz lagundutako ekintzen betearazpen osoa, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluekin bat etorritik eta artikuluko horrek adierazitako mugekin.

2. oinarria.— Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak emateko, ehun eta hamar mila (110.000,00) euroko diru kopurua baliatuko da, 2026. urterako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako partidetatik hartuta, abenduaren 23ko 7/2025 Legeak dioenaren arabera.

3. oinarria.— Laguntzen onuradun izateko baldintzak.

1.— Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira eskakizun hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

a) Helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

b) Salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren, zirkulazioaren edo mugimenduaren sektorean lan egitea.

c) Eranskinaren 1.1.a) oinarrian aurreikusitako kasuan, pertsona fisikoek, sozietateek eta lan elkartuko kooperatibek hiru kopia edo ibilgailu atxiki dituen baimen bat izan behar dute gutxienez beren izenean, salgaien garraio publikoan ibilgailu astunekin jarduteko edo gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiagoko ibilgailuekin bidaiariak garraiatzeko. Merkaturatze-sozietateen edo garraiolari-kooperatiben kasuan, bazkideek edo kooperatibistek aipatu motako hiru baimen izan beharko dituzte gutxienez.

d) Eranskinaren 1.1.oinarriaren b), c) eta d) letretan aurreikusitako kasuan, salgaien garraio publikoan ibilgailu astunekin edo bidaiarienean gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiago dituzten ibilgailuekin jarduteko baimen bat izan beharko dute gutxienez.

2.– Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan egoera hauetako batean dauden pertsonak edo entitateak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuta egotea epai irmo baten bidez edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe erabiltzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat deklaratu egotea, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu egotea –konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu–, epailearen esku-hartzearen mende egotea edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoela.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izana.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak egoera hauetako batean egotea: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bataerazintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean egotea, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatea.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeagatik sortutako betebeharren ordainketa egunean ez izatea, arauz ezartzen den moduan.

h) Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso izana Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.

i) Pertsona fisikoa edo juridikoa zehatuta egotea arau-hauste astun edo oso astun batengatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak egikaritu eta zehapena ordaindu arte.

j) Desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota ez betetzea, hura betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izana egiaztatu gabe.

k) Abenduaren 21eko 20/2023 Legeak 13. artikuluen 1., 2. eta 3. apartatueta jasotako debekuetako bat ere ez izatea.

Atal honetako e) eta g) letretan aipatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoa beteko da. Agindu hori zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoa ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

4. oinarria.— Laguntzak izapidetzea.

1.— Agindu honetan arautzen diren laguntzen izapidetzea hauen arabera egingo da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikulak, uztailaren 30eko Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko 16/1987 Legearen 56. artikuluari lotuta, xedatutakoaren arabera.

2.— Interesdunek baliabide elektronikoen bidez egin beharko dituzte eskabidea, kontsultak eta prozedurako izapide guztiak, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza hauek izapidetzeko baliabide elektronikoak erabiltzeko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa emango dira, hain zuzen, helbide honetan: <http://www.euskadi.eus/egoitza>

5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.— Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa helbide honetan eskura daiteke (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0034911>). Fitxa horretan daude izapideak egiteko jarraibideak eta ereduak, eta bertatik sar daiteke eskabide-inprimakira.

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa onartzen dituen identifikatzeko eta sinadura elektronikoa egiteko bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapideak elektronikoki egin ahal izango dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

2.— Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

6. oinarria.— Dokumentazioa aurkeztea.

1.— Aginduan araututako laguntzak eskuratzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Eskabide-orria, behar den moduan beteta, II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia edo IFZa aurkeztu beharko da, bai eta eskatzailearen ordezkaritza-ahalordea ere, salbu eta horiek Administrazioaren esku badaude eta aldaketarik egon ez bada.

c) Aurrekontua edo faktura, proformakoa edo behin betikoa. Egindako inbertsioari dagokion gastua argi eta zehatz identifikatzeko modukoa izango da, eta ez du nahasterik sortuko diruz lagundu ezin diren beste kontzeptu batzuekin. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo handiagoa bada, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, eranskin honen 1.3 oinarrian ezarritako moduan. Proposamen ekonomikorik onuragarriena aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

d) Proiektuaren azalpen-memoria, inbertsioaren xedea eta ezaugarriak labur adierazita. Era berean, inbertsio bakoitza 1. oinarriko zein epigraferi dagokion zehaztuko da.

e) Hala badagokio, eskola-umeak edo adingabeak garraiatzeko erabilera bereziko bidaiari-garraio publiko erregularrerako baimen baten titulartasunaren egiaztagiria gutxienez.

f) Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Finantza Sailak ezarritako ereduaren arabera, helbide honetan eskuragai (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>); bakarrik, lehenengoz aurkeztu diren edo banku-datuak aldatuak dituzten eskatzaileei dagokienez. Fitxa hori laguntza onartu ondoren aurkez daiteke, baina, nolanahi ere, laguntzak ordaindu baino lehen.

2.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte laguntza-eskabidea eta beharrezko egiaztagiria. Gainera, laguntza-eskabidetik eratorritako jarduketetan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturiko hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko ditu honako hauek:

Eskatzailearen nortasuna, pertsona fisikoa bada, automatikoki egiaztatuko da eskabidea bitarteko elektronikoen bidez egiten denean; izan ere, bitarteko horiek eskuratzeko, pertsona horiek beren burua identifikatu behar dute ziurtagiri digitalaren edo baliokidearen bidez.

Bestalde, dirulaguntza onartzeko ebazpen-proposamena eman aurretik egiaztatu beharko da laguntzen eskatzaileek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Kudeaketa-organoak automatikoki egiaztatuko du hori, eta ez du haien baimenik beharko. Hala ere, eskatzaileak modu arrazoituan egin ahal izango du aurka, eta, kasu horretan, adierazitako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntzei buruzko araudian zehaztutako moduan.

Halaber, organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du salgaien edo bidaiarien autobuseko garraio publikorako baimenen titulartasuna, haien baimenik behar izan gabe, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluekin eta Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 9. artikuluekin. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori eskabidea egitean, eta, hala egiten badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

4.– Laguntza eskatzen duen entitateak eskabide-orrian agertzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eskabidearekin batera. Horren bidez adieraziko du, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, betetzen dituela agindu honetan eskatutako betekizunak, zehazki, alderdi hauei buruzkoak:

a) Eskabide-zerrenda, eta, hala badagokio, zenbat dirulaguntza edo laguntza jaso dituen agindu honetan araututako dirulaguntzak eskatzeko dataren aurreko hiru urteetan, laguntzok zein organok eman dituen eta zenbatekoak izan diren adierazita.

b) Eranskin honen 3.2 oinarrian ezarritako alderdiak -e) letra izan ezik-.

Erantzukizunpeko adierazpenaren barruan edo harekin batera aurkezten den edozein datu edo adierazpenetan funtsezkoak diren zehaztasunik ezak, faltsutzeak edo ez-egiteak gertatzen badira, ezin izango da prozedurarekin jarraitu gertakari horiek jakiten diren unetik bertatik, hargatik eragozti gabe horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritzak beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du, baldin eta beharrezkotzat jotzen badu aurkeztu den eskabidea behar bezala baloratzeko.

7. oinarria.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Mugikortasun Jasangarrirako Estrategiaren Zuzendaritzaren ardura izango da agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

8. oinarria.– Agirietako hutsak zuzentzea.

Laguntzak kudeatzeko organoak ikusten badu eskatzaileak aurkezturiko agiriei ez dituztela betetzen agindu honetan eskatutako betekizunak, hala jakinaraziko dio, eta gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina emango dio hutsak zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Gainera, adieraziko dio ezen, hala egiten ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; horretarako, ebazpen bat emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako eran.

9. oinarria.– Zenbatekoa.

1.– Eranskin honetan araututako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira, eta honela banatuko dira:

a) Eranskin honen 1.1.a) oinarrian aurreikusitako kasuetarako, eskuratze- eta ezartze-kostu osoaren % 50. Nolanahi ere, dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da gehienez, onuradun bakoitzeko.

b) Eranskin honen 1.1.b) oinarrian aurreikusitako kasuetarako, eskuratze- eta ezartze-kostu osoaren % 50. Nolanahi ere, dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da gehienez, onuradun bakoitzeko.

c) Eranskin honen 1.1.c) oinarrian aurreikusitako kasuetarako, eskuratze- eta ezartze-kostu osoaren % 50. Nolanahi ere, dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da gehienez, onuradun bakoitzeko.

d) Eranskin honen 1.1.d) oinarrian aurreikusitako kasuetarako, eskuratze- eta ezartze-kostu osoaren % 50. Nolanahi ere, dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da gehienez, onuradun bakoitzeko.

2.– Ez dira diruz lagunduko kostu hauek: ondasunak eskuratzeagatik ordaindutako BEZa eta, oro har, argi eta garbi zehaztuta ez dauden kostu guztiak, baldin eta ezin badira zuzenean identifikatu eranskin honen 1.1 oinarrian jasotako jarduketetan egindako inbertsioen bidez lortu nahi diren helburuekin.

3.– De minimis gisa emandako laguntzak direnez, ezin izango da 300.000 euroko muga gainditu, barne hartuta onuradun berarentzat laguntza onartu aurreko hiru urteetan kontzeptu horrengatik emandako laguntza guztiak, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren mende daudelako (erregelamendu hori indarrean dago 2024ko urtarrilaren 1etik).

10. oinarria.— Bateragarritasuna.

Agindu honen arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste pertsona fisiko edo juridikoek emandako beste batzuekin, baina guztira jasotako diru kopuruak ezin izango du gainditu diruz laguntzekoa den jarduketaren kostua.

Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badira, eta horren ondorioz dirulaguntzek proiektuaren kostua gainditzten badute, agindu honen bidez emandako dirulaguntza dagokion zenbatekoan gutxituko da.

Salbuespen gisa, eranskin honen 1.1.d) oinarrian jasotako jarduketak -bigarren belaunaldiko takografo adimendunen sistemak instalatzea -ez dira inola ere bateragarriak izango Lurralde Plan-gintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko martxoaren 24ko Aginduak araututako laguntzen deialdi publikoan xede bererako emandako dirulaguntzekin. Agindu horren bidez, errepideko garraio-zerbitzuak ematen dituzten bidaiarien garraioko enpresa pribatuak eta salgaien errepideko garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa arautu eta oinarriak ezartzen dira, urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan –Europar Batasunak sustatua– Next Generation EU.

11. oinarria.— Prozedura.

Laguntzak emateko prozedura lehiaketaz bestelako norgehiagoka-sistema baten bidez egingo da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laguntza-programa honetara bideratutako funts publikoak mugatuak direnez, baldin eta dirulaguntzetara bideratutako gehieneko zenbateko globala ez bada nahikoa aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko eranskin honen 9. oinarriaren 1. puntuan jasotako gehieneko zenbatekoetan, hasieran eskabide bakoitzerako kalkulaturako zenbatekoen proportzio berean hainbanatuko da zenbateko horiek osorik estaltzeko behar den guztizko zenbatekoa.

12. oinarria.— Dirulaguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.— Dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Mugikortasun Jasangarriaren Saileko Azpiegitura eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordearen ebazpenaren bidez emango dira, kudeaketa-organoak espedienteari txosten bat gehitu ondoren, non adieraziko baitu ezen, eskura duen informazioaren arabera, ondorioztatzen dela onuradunek betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak. Ebazpen horrek ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio administrazio bereko Mugikortasun Jasangarriaren sailburuari, hilabeteko epean.

Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan, eta sei hilabeteko epean, agindu honek ondorioak izaten dituen egunetik aurrera. Ebazpen horrek zehaztuko du dirulaguntza ematen den ala ukatu egin den; aldekoa bada, onuraduna zein den eta zenbateko dirulaguntza eman zaion adieraziko da, eta, kontrakoa bada, zein izan diren ukatzeko arrazoiak.

2.— Aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan ez bada jakinarazten laguntzak esleitzeko ebazpena, eskabidea ukatu egin zaiela ulertu beharko dute interesdunek, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

3.— Hargatik eragotzi gabe laguntzak esleitzeko prozedura amaituko duen ebazpenaren berri interesdunei ematea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira onuradunen zerrenda, kasuan-kasuan finantzaturako jarduera eta emandako zenbatekoak, denek jakin dezaten.

4.– Agindu honetan berariaz aurreikusi gabekoari dagokionez, honako hauen bidez arautuko da dirulaguntzak emateko prozedura: urriaren 1eko 39/2015 Legea, abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta hura garatzeko xedapenak, eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, hargatik eragotzi gabe aplikatzekoak diren oinarritzko xedapenak.

13. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Dirulaguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.

b) Entitate emaileari justifikatzea betetzen dituztela dirulaguntza ematea edo dirulaguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak eta betekizunak, bai eta jarduera gauzatzen dutela ere.

c) Organo edo entitate emaileak egingo dituen egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jarduketak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren dirulaguntzen kasuan. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziak xedatutako jarduketak onartu beharko dituzte, bai eta finantzaketa dela-eta beste kontrol-organo batzuek egin ditzaketenak ere.

d) Beste edozein administrazio edo ente publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea entitate emaileari.

Hura jakin bezain laster eman beharko diote haren berri, eta, nolanahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

e) Dirulaguntza ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu baldin bada, horren berri ematea entitate emaileari.

Hura jakin bezain laster eman beharko diote haren berri, eta, nolanahi ere, jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

f) Emandako laguntza ordaintzeko unean, egiaztatzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere. Egiaztapen hori automatikoki egiaztatuko du organo emaileak.

g) Izaera juridikoak hala eskatzen badu, kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa zaion merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatutako moduan, egiaztatze- eta kontrol-ahalmenak behar bezala baliatzen direla bermatzeko.

h) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak eta kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

i) Emandako laguntzen eta dirulaguntza eman duen organoaren berri ematea bere webgunean edo sare sozialetan.

j) Enpresaren deslokalizaziorik ez izatea, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.

14. oinarria.– Emandako dirulaguntzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo interesdunaren eskariz, emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki dezake, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Alderdiak hala eskatuta men eginez gero, onuradunak, 13.e) oinarrian jasotako betebeharra betez, jakinarazpena egin behar du, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilerak justifikatu baino lehen.

b) Zenbatekoa ez handitzea.

c) Benetan egin den edo egingo den jarduera jasota egotea oinarri arautzaileen xedearen barruan.

d) Aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak onuradunaren borondatearen mende ez egotea.

e) Aldaketa eragin duten elementu eta inguruabar berriek, baldin eta hasierako emakidan eragina izan badute, ez eragitea dirulaguntza ukatzea, eta aldaketa horrek ez ekartzea hasieran onetsitako proiektua nabarmen aldatzea.

f) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

2.– Baldin eta, onuradunak dirulaguntzaren zenbatekoa jaso ondoren, aldaketaren ondorioz gutxitu egiten bada dirulaguntzaren zenbatekoa, eranskin honen 17. oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

15. oinarria.– Justifikazioa eta ordainketa.

Emandako dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez ordainduko da, diruz lagundutako jarduera guztiz burutu ondoren eta egindako gastu guztiak justifikazio-kontu bat aurkeztuz justifikatu ondoren. Kontu hori jarraian zehazten den moduan egingo da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikularekin bat etorritz.

Justifikazio-kontu horrek, adierazlearen erantzukizunpean, honako hauek jasoko ditu:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen jarduketa memoria, egindako inbertsioak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Inbertsioen eta gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako inbertsioa finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Dirulaguntzaren onuradunei buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita, hala badagokio.

Adierazitako justifikazio-kontuarekin batera, diruz lagundu daitekeen gastuaren behin betiko fakturak edo egiaztagiria aurkeztuko dira. Ordainagiri horietan argi eta garbi identifikatu behar dira agindu-emailea, onuraduna, fakturaren zenbakia eta ordainketa-data.

Nolanahi ere, dokumentazio hori 2026ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da.

Ezin izango da dirulaguntza ordaindu onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu edo itzulketa-ebazpen baten ondorioz zordun bada.

16. oinarria.– Ez-betetzeak.

Emandako laguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko du onuradunak, baita aplikatzekoak diren berandutze-interesak ere, baldin eta laguntza ematea oinarritu zuten inbertsioak egiten ez badira edo egin izana ezin bada justifikatu, eranskin honen 1.3 oinarrian adierazitako ondasunen destino-betebeharra betetzen ez bada, edo abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.1 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kausaren bat gertatzen bada.

Hala ere, onuradunaren betetze-maila nabarmen hurbiltzen bada erabateko betetzera, eta onuradunak egiaztatzen badu konpromisoak betetzeko xedez jardun duela argi eta garbi, itzuli beharreko zenbatekoa honela kalkulatu da: emandako laguntzaren ordainketari dagokion zenbatekoaren ehuneko proportzionala kenduko zaio laguntza oinarritu zuen inbertsio osotik egin ez den ehunekoari.

17. oinarria.— Dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

1.— Onuradunak agindu honen aurreko oinarrian xedatutakoa betetzen ez badu, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan adierazitako prozedurari jarraituko zaio:

a) Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, Azpiegituren eta Mugikortasun Jasangarriaren sailburuordearen erabakiz.

b) Prozedura izapidetzean, interesdunari entzunaldirako eskubidea bermatuko zaio, 15 egunez.

c) Itzultzeko prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakiaren egunetik hasita.

2.— Ebazpenean ez-betetzea izan dela xedatuz gero, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari dagozkion zenbatekoak gehi laguntza ordaindu zenetik dagozkion berandutze-interesak itzuli beharra deklaratu da.

3.— Betebehar horrek ez du zerikusirik izango eska daitezkeen zehapenekin.

18. oinarria.— Enpresaren deslokalizazioaren deklarazioa.

1.— Abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresa deslokalizatu egingo da bi inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan duen jarduera etetea edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean edo aipatutako egoeretako edozein gertatu aurreko edo ondorengo hiru urteetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste leku batean, eten den jarduera bera garatzea; hau da, enpresak lurralde honetan garatzen zuen jarduera bera garatzea jarduera utzi duen entitate berak edota harekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatzen diren harremanen bat duen edo harekin lotuta dagoen beste entitate batek, sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoaren arabera.

Behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan, enpresak deslokalizatu gabe daudela ulertuko da, baldin eta, inguruabar horiek gertatzearekin batera, entitateak, zuzenean edota Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatzen diren harremanetako bat duen beste entitate baten bidez, edo sozietateen gaineko zergaren araudiaren arabera harekin lotuta dagoen beste entitate baten bidez, beste enpresa-jarduera batzuk abiarazten baditu Euskal Autonomia Erkidegoan, eta jarduera horien ondorioz sortzen den lanpostu-kopurua ezabatutakoen antzekoa bada, edo jarduerok ezinbesteko arrazoiengatik hasi badira.

2.— Jaurlaritzaren erabakiz deklaratu da enpresa deslokalizatu dela, laguntza ematen duen organoak proposatuta, eta aurreko apartatuan ezarritako inguruabarrak gertatu eta hurrengo lau urteetan hasi ahal izango da prozesua.

3.— Enpresa deslokalizatzeko deklarazioak berekin ekarriko du enpresak deklarazio horren aurreko zortzi urteetan jasotako zenbatekoak itzuli beharra, bai eta zenbateko horietako bakoitza jasotzen denetik deklarazioaren egunera arteko berandutze-interesak ere. Deklarazio horren ondorioz, deslokalizatuta dauden enpresek eta haien bazkideek ezin izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek emandako laguntzak eskuratu zortzi urteko epean, deklarazioaren datatik hasita.

II. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA: TEKNOLOGIA BERRIEN ETA SEGURTASUN SISTEMAK ESKURATZEKO
ETA EZARTZEKO DIRULAGUNTZAK

I.– ENTITATE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK.

a.– TITULARRA

Pertsona juridikoa:

IFZ/IFK:

Entitatearen izena:

edo

Pertsona fisikoa:

Lehenengo abizena: Bigarren abizena:

Izena: IFZ/AIZ:

Sexua:

b.– ENTITATE ESKATZAILEAREN ORDEZKARIA.

Lehenengo abizena: Bigarren abizena:

Izena: IFZ/AIZ:

II.– HELBIDE-DATUAK

Helbidea:

Probintzia: Udalerria:

Posta-kodea:

III.– JAKINARAZPENAK ETA ABISUAK

Jakinarazpenak egiteko kanala: telematikoa.

Abisuak bidaltzeko datuak:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa (SMS):

IV.– JAKINARAZPENAK ZEIN HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN.

☐ Gaztelania☐ Euskara

V.– ESKURATU ETA EZARRIKO DEN SISTEMA MOTA (markatu X batez).

☐ a) Ibilgailu-flotak lokalizatzeko eta kudeatzeko sistemak (GPS edo antzekoak), kudeaketa- eta kontrol-zentro batekin lotuak, bai ibilgailu astunetan egiten den salgaien garraio publikorako, bai gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiagoko ibilgailuetan egiten den bidaiari-garraiorako. Ez da dirulaguntzarik emango ibilgailu-floten kudeaketa- eta kontrol-zentro batean integratuta ez dauden lokalizazio-elementuak modu indibidualizatuan eskuratzeko.

☐ b) Salgaien garraio publikoko ibilgailu astunetarako eta gidaria barne dela bederatzi jarleku baino gehiagoko bidaiari-garraioko ibilgailuetarako segurtasun-elementuak, gidatzea seguruago egiten dutenak, hala nola:

– Artaziarena ez egiteko sistemak.

– Istripu-erregistratzailea.

– Suteak detektatu eta autoitxaltzea.

– Aurreko beiratik gidatze-dinamika erregistratzen duten kamera-sistemak (*dash cam*), bai eta gidatzean ikuspena edo maniobragarritasuna hobetzera bideratutakoak ere.

– Talkak arintzeko teknologiak, hala nola sentsoreak eta radarrak erabiltzea talkak saihesteko.

– Istripu edo larrialdiak gertatzen direnean kontrolgunera automatikoki deitzeko edo abisatzeko sistemak.

- ☐ c) Gidatze efizientea optimizatzeko eta erregai-kontsumoa murrizteko sistemak, hala nola:
- Ekonometroak eta gidatzea monitorizatzeko sistemak.
 - Gurutzaldi-abiaduraren kontrolagailuak.
- ☐ d) Bigarren belaunaldiko takografo adimendunen sistemak.
- ☐ Guztira, euro (BEZa kanpo), 2026an egin diren edo egingo diren gastuengatik.

VI.– ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK (markatu X batez).

XEDE ETA HELBURU BERARI LOTUTAKO LAGUNTZAK EKITALDI HONETAN

(Hautatu honako 3 aukera hauetako bat)

- ☐ Ekitaldi honetan, ez dut jaso beste administrazio batek edo entitate pribatu batek emandako laguntzarik xede eta helburu bererako.

edo

- ☐ Beste laguntza bat jaso dut xede eta helburu bererako, eurokoa, administrazio honek emana:

edo

- ☐ Beste laguntza bat eskatu dut xede eta helburu bererako, baina oraindik ebazpena jasotzeko zain nago. Eskatutako laguntzaren zenbatekoa:€. Administrazioa:

- ☐ Aurreko bi aukeretako edozein bete badut, gainfinantzaketarik ez izateko konpromisoa hartzen dut.

BIGARREN BELAUNALDIKO TAKOGRAFO ADIMENDUNA INSTALATZEARI LOTUTAKO LAGUNTZAK (markatu, hala badagokio)

- ☐ Laguntza bat jaso dut bigarren belaunaldiko takografo adimenduna instalatzeko, 2023ko martxoaren 24ko Aginduak araututako laguntzen deialdi publikoaren esparruan emana (urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, SEEParen esparruan – EBk finantzatua (Next Generation EU) –.

DE MINIMIS ARAUBIDEARI LOTUTAKO LAGUNTZAK (markatu, hala badagokio).

- ☐ *De minimis* laguntzei buruz Kontseiluak 2023ko abenduaren 13an onartutako 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren mende dauden laguntzen barruan, euroko dirulaguntza eskatu diot beste administrazio edo entitate pribatu bati, eskabide honen aurreko hiru urteen barruan. Laguntza horietatik, zenbateko hau jaso dut:€

Organo emailea	Data (uu/hh/ee)	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa
	Guztira		

- ☐ Ez daukat zigorrik, epai irmo bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, eta ez nago kondenatuta prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoen bidegabeko erabilera, influentzia-trafikoa, iruzurak eta ordainarazpen ilegalak edo hirigintza-delituak egiteagatik.

- ☐ Ez dut eskatu borondatezko konkurtso deklaraziorik; ez naute jo kaudimengabetzat inongo prozeduratan; ez nago deklaratura konkurtsoan, salbu eta horretan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu badu, eta ez nago esku-hartze judizialaren mende, ezta desgaituta ere uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe dagoela.
- ☐ Ez dut eragin Administrazioarekin egindako inolako kontraturen suntsiarazpen irmorik, ni erruduntzat jotzeagatik.
- ☐ Ez nago (pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administrazioaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak) Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunari buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituenak jasotako inongo egoeratan, eta ez daukat hautetsi-kargurik, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututakorik, ez lege horretan ez arlo hori arautzen duten araudi autonomikoetan araututako nondik norakoetan.
- ☐ Egunean ditut indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- ☐ Ez daukat zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.
- ☐ Egunean ditut dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritik.
- ☐ Ez nago ebazpen irmo baten bidez zigortuta dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin 20/2023 Legearen edo halakorik dioten beste legeen arabera. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten enpresek, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.
- ☐ Ez nago zehatuta (pertsona fisikoa edo juridikoa) arau-hauste astun edo oso astun batengatik, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, administrazio-bideko ebazpen irmoaren bidez, harik eta neurri zuzentzaile egokiak egikaritu eta zehapena ordaindu arte.
- ☐ Bete dut desgaitasuna duten pertsonen alde lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota, edo, bestela, egiaztatu dut hartu ditudala hura betetzeko beste neurri batzuk.
- ☐ Entitate/pertsona eskatzaileak konpromisoa hartzen du enpresa ez deslokalizatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzearen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.
- ☐ Benetakoak dira eskabidean jasotako datuak eta aurkeztutako dokumentazioa.

VII.– ADMINISTRATIOAK OFIZIOZ EGIAZTATZEA (markatu X batez).

Aplikatu beharreko araudiaren arabera, prozedura honen organo instrukziozileak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Eskatzaileak salgaien eta autobus-bidaia-eraren garraio publikorako edo garraio-operadore izateko dituen baimenen titulartasunari buruzko datuak (SITRAN garraio-enpresen eta -jardueren erregistroa).
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).

- Zerga-betebeharrek egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).
- ☐ Prozedura honen instrukzio-organoak datuak ofizioz egiaztatzearen AURKA NAGO (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Aurka egonez gero, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

VIII.– AURKEZTUTAKO AGIRIAK (markatu X batez):

- ☐ Eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren identifikazio fiskaleko zenbakia edo IFZa aurkeztu beharko da, bai eta eskatzailearen ordezkaritza-ahalordea ere, salbu eta haiek Administrazioaren esku badaude eta aldaketarik egon ez bada.
- ☐ Aurrekontua edo faktura, proformakoa edo behin betikoa. Egindako inbertsioari dagokion gastua argi eta zehatz identifikatzeko modukoa izango da, eta ez du nahasterik sortuko diruz lagundu ezin diren beste kontzeptu batzuekin. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 15.000 eurokoa edo handiagoa bada, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko dira, agindu honen 1.3 artikuluan ezarritako moduan. Proposamen ekonomikorik onuragarriena aukeratzeko ez bada, espresuki justifikatu beharko da memoria batean.
- ☐ Proiektuaren azalpen-memoria, inbertsioaren xedea eta ezaugarriak labur adierazita. Era berean, zehaztuko da inbertsio bakoitza 1. artikuluko zein epigraferi dagokion.
- ☐ Hala badagokio, eskola-umeak edo adingabeak garraiatzeko erabilera bereziko bidaiari-garraio publiko erregularreko baimenaren titulartasunaren egiaztatzea, 2.e) artikulua esandakoarekin bat etorritik.
- ☐ Hirugarrenen alta edo horren aldaketaren fitxa, Ogasun eta Finantza Sailak ezarritako ereduaren arabera; betiere, lehenengoz aurkeztu diren edo banku-datuak aldatuta dituzten eskatzaileei dagokienez.

IX.– DATU PERTSONALEN BABESA:

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak tratatu, eta Garraioa Planifikatzeko Laguntzak eta Dirulaguntzak izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Mugikortasun Jasangarriko Estrategiaren Zuzendaritza, Mugikortasun Jasangarriaren Saila.

Helburua: Garraio Plangintzaren arloko laguntzak kudeatzea eta ematea.

Salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren sektoreari teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratzeko eta ezartzeko laguntzak kudeatzea eta ematea.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da lege-betebehar aplikagarriak betetzeko. (DBEO, 6.1.c art.)
- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. (DBEO, 6.1.e) art.)
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- DBEO, 9.2.b) Lan-zuzenbidearen eta segurtasunaren eta gizarte-babesaren arloko betebeharrak betetzea.

Hartzaileak:

- Foru-aldundiak.
- Interesdun legítimoak.
- Kontuen Auzitegia edo autonomia-erkidegoko baliokidea.
- Gaian eskumena duen ministerioa.
- Europako Batzordea.

- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/093800-cap2-eu.shtml>

Honako hauek betez:

-Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>). Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>).

Halaber, jakinarazten dizugu banku-datuak eta posta-komunikazioetarako datuak gorde egingo direla Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen hirugarrenen erregistroan.

Administrazio Publikoak erkatu egin ahal izango ditu aurkeztutako datuak, bai eta egoki ikusten dituen egiaztapenak egin ere, laguntza behar bezala esleitzeko.

Data:

Sinadura: